


Telebista utz, bizioren bat pitz



BEIA SALABERRI
IRAKASLEA



PAULA ESTÉVEZ

Maskarak mokotik atera ditugunetik eta denetan sar gaitezkeenetik gure buruak eskaneatu gabe, gauzak aldatu dira. Egiazki. Ez gara hereneguneko bizimoldera itzuli, ez, ez baita sekulan berriz ordukora itzultzerik izanen.

Alta. Bisaia aldatu dira. Usainak ere. Eta usaiak.

Horretaz bada testigu bat: Facebook eta Netflixen aztaparretatik libratzen ari gara, hala dirudi behintzat. Azken asteetan azaldu baita bi enpresa horiek, besteak beste, gibelera ari direla.

Beheiti omen doa afera, ARGIAko zutabe hauetan bertan, beste batzuek nik baino anitez hobeki azaldu dute nondik norakoa. Batetik harpidetza kopurua gutxitu omen zaie, ez bakarrik adibidez Netflixek Errusiako harpidetzak eteteko hautua egin duelako, beste hainbat kide galdu baitituzte, segur aski konfinatze sasoen bukaerari zor. Bestetik, burtsan galera handiak izan dituzte, kapitalak ihes egiten baitu, hau da akziodunek nahiago dutela haien dirutza berreskuratu beste zenbait aferatan inbertitzeko, behar bada proposatuko diguten produktu berri baten ekoizteko, gure burmuin zati eskuragarri eskaintzeko.

Kapitalaren bideak horrelakoxeak dira, zer eginen diogu ba? Nehon eta deuse-tan akzio txiki bakarra sekulan ukan ez dugunek, hasteko, deus.

Sare sozialen beherakada senditzen zen lehenagotik, pertsonalki 2020az geroztik gero eta gibelapen handiagoo hartu dut. Alta, nork erranen zuen holarikorik niregandik? Arrazoi anitz banituen. Bata orduan jasotzen genuen informazio oldearengatik, bestea kalapita lekuak bilakatuak baitziren, azkenik eta sustut, Santi Leonek Twitter utzi zuelako eta ondorioz poesia kotsiaz pribatu gintuen horrek.

Orain Netflixen aldi da, gainbehera jasaten omen du. Eta ene begiek ez dute negar handirik isuriko horregatik, ez baitakit zer den. Azken hiruzpalau urteetan sekulako arrakasta zuen nahierako telebista zerbitzuak, eta ondorio hau ez dut ateratzen inongo ikerlanetako datuen irakurketatik, konklusio horretara heltzeko aski baitut entzutea kafe tenoreko elkarrizketen nondik norakoa, barra izkinakoak ala bulego ziloetakoak. Prezio miserable batengatik, omen, telebista zerbitzu erraldoia eskaintzen du Netflixek eta konkurrenteen aldean zerbitzu anitez hobea. Disney-k bai-

no. Canal-ek baino. Warner-ek baino. Diotenez, ikaragarria eta iraultzailea da, ohiko telebista kateetan eskaintzen diren programa mediokreei alternatiba paregabea. Katalogoa erraldoia dela, hala diote lankideek, gauak eta gauak iragaitzeko, zurrunbilotan, ehunka serie desberdin, denak liluragarri eta originalak, eta denak hain berdintsuak, irudikaa ezina dela diote, argi urdinak kaptaturik, batetik bestera, bizi osoa iragan daitekeela, zerbait ikusten, zernahi, gaur bata, bihar bestea, hala kondatzen didate. Hori dela libertatea, bizia eta sosa nahi den horretan gastatzea, nahi denari beha.

Baiki, on dagiela, zeren ulergaitza baita hori dena telebistari begira, hautuz nahiz bortxaz, hilabeteen gehienik ere hiruzpalau oren besterik iragaiten ez ditugunontzat.

Azken finean, bada esperantza, badirudi jendeak atxeman duela zeregin hoberik. Izan ere, ez dira eskas: liburu bat erostea, larrua jotzea, txurro multzoan gaindi xokoleta beroa nola hedatzen den begiratzea, jasmina kimatzea, apirileko Biarritzeko portu zaharreko urak probatzea... Telebista utz eta bizio zenbait piztea, hots. ●